



2004

2004. urteko Txostena

CAF

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.
ETA CAF TALDEA OSATZEN DUTEN MENDEKO ELKARTEAK



Aurkibidea

<u>Lehendakariaren eskutitza</u>	2
Talde Bateratuaren Kudeaketa Txostena	6
– Emaitzak	7
– Merkataritza-jarduera	8
– Industria-jarduera	10
– Giza Baliabideak	12
– 2004. urteko inbertsioak	13
– Garapen teknologikoa	14
– Etorkizuna	16
– Ondorengo gertaerak	17
<u>Ikuskaritza Txostena</u>	19
Talde Bateratuaren Urteko Kontuak	23
– Egoera-balantze bateratuak	24
– Galdu-irabazien kontu bateratuak	26
– Memoria Bateratua	28
<u>Administrazio-Kontseiluaren onarpena</u>	48
Administrazio Kontseiluak Batzar Nagusiak onar ditzan aurkeztu dituen Erabakiak	49
<u>Emaitzak Aplikazio Proposamena</u>	50
<u>Administrazio Kontseilua</u>	51
<u>Informazio Osagarria</u>	53
– Burtsari buruzko informazioa	55
– Egoera Balantzeak	56
– Galdu-irabazien kontuak	58



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.
ETA CAF TALDEA OSATZEN DUTEN MENDEKO ELKARTEAK

2004. urteko Txostena

Argitalpen honek CAF eta bere Mendeko Sozietateen dokumentazio legala jasotzen du eta ingelesez eta CD-ROMean ere argitaratu da.

www.caf.net helbidean CAFi eta bere produktuei buruzko informazioa nahiz akziodun eta inbertitzaileei legez ezarritakoa aurki daiteke.

Lehendakariaren eskutitza



Akziodun preziatu hori:

Aurreko urteetan bezala, joan den ekitaldiko (2004) Kudeaketa Txostenaren eta Urteko Kontuen aurkezpena dela-eta natorkizu, urteak eman zituen gai aipagarrienen berri zuri ekartzera. Halaber, gure Konpainiaren etorkizunari buruzko hainbat hausnarketa ere egingo ditut.

Urte ona izan zuen 2004a CAFek. Salmentak dezente hazi ziren; irabaziak, berriz, 2003koak baino handiagoak izan ziren; kontratazioari dagokionez, bestalde, errekorrak hautsi genituen. Horrenbestez, CAFek sekula izan duen eskari-zorro handienarekin amaitu genuen ekitaldia.

laz, 578 milioi euroko salmentak egin zituen CAF Talde Bateratuak, hau da, 2003an baino % 16,6 gehiago.

Taldearen emaitza positiboa 14 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino % 21 handiagoa. Interesak, zergak eta amortizazioak ordaindu aurreko irabazia (EBITDA) 32,7 milioi eurokoa izan zen, aurreko ekitaldikoa baino % 12,8 handiagoa; cash-flowak ere gora egin zuen, 32,7 milioi euroraino (2003koa baino % 17,4 handiagoa).

Datu horiek ikusirik, honako hau proposatu diogu Batzordeari: 4,7 milioi euro ordaintzea akziodunei, hots, aurreko urtean baino % 25,7 gehiago.

Lehendik ere esana dudanez, kontratazio-maila handia izan zen iazko ekitaldiaren datu esanguratsuenetako bat. Izan ere, 1.433 milioi euroko kontratu berriak eskuratu genituen, aurreko urtekoan baino % 107 gehiago, beraz. Ekitaldiaren amaieran, 2.445 milioi eurokoa zen eskari-zorroa.

Hona hemen 2004ko esleipen nagusiak: abiadura handiko 30 tren (250 km/h), zabalera aldakorreko abiadura handiko 45o tren (250 km/h), Madrileko Metrorako 445 bagoi, eta sei tren gehiago Erromako Metrorako.

Entregei dagokienez, bidalita daude jada Pittsburgherako unitate berriak, eta oso aurreratuta daude RENFErentzako eta Ipar Irlandarako diesel trenak egiteko lanak, baita 250 km/h-ko trenen lanak ere, bai zabalera finkoko bai aldakorrekoenak. Erromako eta Mexiko Dfko metroetarako trenak ere hasi gara entregatzen.

2005eko lehenbiziko hilabetei dagokienez, berriz, azpimarratuko nuke normaltasun osoz ari direla egiten programatutako jarduera industrialak, baita kontratazio berriak ere. Kontratazio horietatik, aipatzekoak dira Bartzelonako Metrorako egin behar ditugun 50 bagoiak eta Aljeriarako 12 diesel trenak.


Eskari-zorroaren zenbatekoa ikusirik, datozen ekitaldiei lasai ekiteko moduan gara, baina jakinik, betiere, garapen teknologikoan aurrera egiten segitu behar dugula, baita produktibitate orokorra hobetzen ere, gero eta irekiago den merkatuan lehiatzen jarraitu ahal dezagun.

Etorkizuneko sektore batean ari gara. Gero eta gehiago eskatzen du gizarteak trenbidea, garraio publikoaren arazoak konpontzeko bitartekorik egokiena baita. Horregatik, kalitatea eta berrikuntza teknologikoa behar-beharrezkoak ditugu, bezeroei tren-aukera osoa eta leihakorra eskaintzeko.

Ziur naiz gure enpresako gizon-emakumeek gogotsu jarraituko dutela Konpainiaren helburuen alde lanean. Beraz, baikor begiratzen dugu etorkizunera.

Beste behin ere, akziodunek gure Konpainian duten konfiantzak helburuak lortzeko lanean gogor segitzera bultzatzen gaitu.

Eskerrik asko.



José María Baztarrica Garijo
Lehendakaria



HIRIAK/HIRI-INGURUAK

Metroak

- Bartzelona
- Bilbo
- Brusela
- Hong Kong
- Madril
- Mexiko
- Erroma
- Sao Paulo
- Sevilla
- Washington



Unitate artikulatuak

- Amsterdam (Holanda)
- Buenos Aires (Argentina)
- Monterrey (Mexiko)
- Pittsburgh (AEB)
- Sacramento (AEB)
- Valencia (España)



Aldirikoak

- Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE)
- Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos (ET/FV)
- Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha (FEVE)
- Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC)
- SFM de Mallorca
- Caminhos de Ferro Portugueses
- Finnish Railways (VR Ltd)
- Heathrow Express
- Hong-Kong Lar Airport
- Irish Rail
- Northern Ireland Railways
- Northern Spirit

Tranbiak

- Bilbo
- Lisboa
- Valentzia

LINEA HANDIAK

Abiadura Handikoak

- Abiadura handiko eta zabalera aldatzeko ATPRD-120 trenak
- Madril-Sevilla lineako Abiadura Handiko Trenak (AVF)
- Lanzadera-trenak (RENFE)

Intercity

- ADR tren baskulagarriak
- Intercity, Push-Pull serbitzua

Bidaiarientzako kotxeak

- Konpartimentuan banatutako bagoiak eta erosotasun handiko aretoa
- Ohe-bagoiak eta ohatzeak
- Jatetxe-eta kafetegi-bagoiak



**CAF lider internazionala da ber teknologia,
kalitatea eta serbitzuari esker. CAF trenak 20
herrialdeetan ibiltzen dira.**



***Talde
Bateratuaren
Kudeaketa
Txostena***



Emaitzak


Hauak dira 2004ko ekitaldiko parametro ekonomikoak:

- Galdu-irabazien kontuak 14.056 mila euroko emaitza positiboa eman du, zergak ordaindu ondoren; aurreko ekitaldian baino % 21 inguru gehiago.
- Ibilgetuaren amortizazioak 15.223 mila eurokoak dira. Horiek, ekitaldiko zerga aurreko emaitzari gehituz gero, 32.713 mila euroko cash-flow-a ematen dute.
- Negozio-zifraren zenbatekoa 578.012 mila eurokoa izan da.
- Eskaera-zorroa urte-bukaeran 2.445.230 mila eurokoa zen, aurreko urtekoa baino handiagoa. Horri esker, enpresak jarduera behar bezala egin ahal izango du.
- Sozietate nagusiko emaitzak aplikatzeko proposamena aurreko ekitaldietako politikari jarraitzen dio, eta zerga ondorengo mozkinetatik 4.696 mila euro dibidendu gisa banatzea eta 7.977 mila euro borondatezko erreserbetara eramatea proposatu da.
- Sozietate nagusiaren Baliabide Propioei, mozkinak banatzeko proposamena onartuz gero, erreserbetara eramango diren emaitzak gehituko zaizkie, eta guztira 140.557 mila euro izango dira.
- Azkenik, eta lege-araudia betetzeko, CAFek jakinarazten du ez berak eta ez bere enpresa filialek 2004. urtean ez dutela izan enpresaren akziorik eta ez dituztela erosi.

**Galdu-irabazien kontuak
14.056 mila euroko emaitza
positiboa eman du, zergak
ordaindu ondoren; aurreko
ekitaldian baino % 21
inguru gehiago.**

Emaitzak eta Cash Flowa zergen aurretik


(mila euro)



* 2001eko, 2002ko, 2003ko eta 2004ko datu bateratuak


Baliabide propioak

(mila euro)



Dividuen/akzioen bilakaera

(eurotan)



Merkitaritzaz-jarduera

Ekitaldiaren amaieran eskaera-zorroa 2.445 milioi eurora heldu zen, aurreko ekitaldian baino % 54 gehiago.


2004an, oso handia izan zen merkitaritzaz-jarduera, batez ere barne-merkatuan; 1.433 milioi euroko bolumeneko kontratuak egin ziren; hau da, 2003an baino % 107 gehiago. Ekitaldiaren amaieran, eskaera-zorroa 2.445 milioi eurora heldu zen.

Zorro hori, aurreko urtekoa baino % 54 handiagoa, CAFek inoiz lortu duen handiena da, eta aurreko ekitaldiko joerari jarraituz barne-merkatuko kontratazioa asko hazi dela erakusten du. Lortutako eskaeren ondorioz, barne-merkatuak zorro osoaren % 78 hartzen du.

Barne-merkatuan nabarmentzekoak dira, beste fabrikatzaile batekin batera partzuergoa osatuta joan den ekitaldiko txostenean adierazi genituen eskaerak: 250 km/h-ko abiadura handiko 30 tren eta zabalera aldakorrek 250 km/h-ko abiadura handiko 45 tren. Azken eskari hori oso garrantzitsua da, CAFek egindako apustua berresten baitu. Izan ere, RENFEko linea horiek bi trenbide-zabalera partekatu behar dituztenez, etorkizun oparoa dute tren horiek. Horretaz gain, CAFek –berak garatutako teknologiarekin– abiadura handiko trenetan zeresana izango duela bermatzen du horrek.


Eskaera-kartera

(milioi euro)



Salmentak guztira

(milioi euro)



* 2001eko, 2002ko, 2003ko eta 2004ko datu bateratuak



Madrilgo Metroarekin ere kontratazio handiak egin dira: 3000 serieko 6 kotxeko 36 tren eta 3000 serieko 4 kotxeko bi tentsioko 54 tren. Bestalde, Madrilgo Metroarekin 8000 serieko 14 kotxe higiarazle eta 6000 serieko 9 kotxe atoi kontratatu ziren, aurreko eskarrietan hornitutako dagozkien serie bereko unitateei eransteko. Kontratazio horretan guztira 455 kotxe kontratatu dira, guztira 514 milioi euroko baliokoak.

Mantentze-lanen jarduera asko igo da; ia 2003ko zorroa hirukoiztu da. RENFERen abiadura handiko trenen eskara berriek eragin dute batez ere igoera hori, baita jarduera hori 14 urterainoko kontratuetan sartzeak ere. Hain zuzen, hori zen erdietsi nahi genuen helburua alor horretan egonkortasuna lortzeko.

Esportazioari dagokionez, lan handia egin dugu, nahiz eta ekitaldi honetan Erromarako Metrorako egin ditugun 6 unitate baino ez diren gehitu. Edonola ere, oinarriak badiugu hurrengo hilabeteetan kontratazio berriak egiteko.

Hiriko eta hiri inguruko garraioari dagokionez, sareak edo ezarpen berriak zabaltzeko prozesuan edo hori burutzeko azterketa-prozesuan daude hainbat udal-administrazio. Horrek, merkatuan dugun posizioa ikusirik, egingo diren eskaeretan bidea erraztuko digu.

RENFERi dagokionez, Azpiegitura eta Garraio Plan Estrategikoa (PEIT) onartu berri da, eta 2020. urtera begira inbertsio handiak aurreikusten ditu. Positiboa deritzo CAFek etorkizuneko egoera horri, teknologiaren eta industriaren esparruan gure enpresak duen mailagatik.

Abiadura handiko trenaz gain, besteak beste hiriko garraioan inbertsioak egitea ere aurreikusten du Planak. Horretarako, CIVIA trenak –batzuk dagoeneko eginak; beste batzuk egiten alor horretan sendo jarraitzeko aukera ematen digute.



Industria-jarduera

Zabalera aldakorreko trenak, anezka-trenak, Intercityak, aldiriko trenak, metroak, unitate giltzatuak, tranbiak,...



2004an, unitate hauek entregatu dira: Washingtoango Metrorako azken 3 UTak, Sacramentorako 8 LRV, Bilborako % 100 zoru baxuko tranbia, Irlandako Errepublikarako diesel tren bat, Mallorcarako kotxe bat eta 2 kotxekeko 3 CIVIA tren RENFErentzat. Entregatuta daude, beraz, aipatutako proiektuei lotutako ibilgailu guztiak.

Ekitaldi berean beste ibilgailu hauek ere entregatu dira: Pittsburgherako 22 LRV unitate berri eta 2 berritu, eta RENFErentzat 12 ADR diesel tren, 4 s/104 anezka-tren eta trenbide-zabalera aldakorreko 3 Brava ATPRD tren (2 trenbideak probak egiten eta 1 homologatzeko zain). Horrez gain, Mexikoko Metrorako lehen trenea, Ipar Irlandarako (NIR) 10 DMU tren, Erromako Metrorako lehenbiziko 2 tren eta 2000 serieko 2 unitate Madrilgo Metrorako.

Garatze-fasean dauden bestelako proiektuak oso aurreratu daude: bidaiarientzako 67 kotxe Irlandako Errepublikarako (IE), Mallorcarako azken kontratuko lehen trenak, Irlandarako 2. kontratuko DMU trenak eta Sevillako Metro Arinaren lehen xasisak eta kaxak.

Berrikiago kontratatutako proiektuei dagokienez, berringearritza-faseko diseinua garatzen ari gara RENFErentzako 40 CIVIA tren berrietan, ingeniariatza zehatza lantzen eta materialak biltzen hasi gara Bruselarako 6 kotxekeko 15 trenentzat, kaxakako multzoak egiten ari gara M.M. S/8000 14 kotxeetarako, Bartzelonako Metrorako 5 kotxekeko 39 trenen proiektuko lehen kotxeen akabera egiten hasi gara, baita FGCrako (Ferrocarriles de la Generalitat de Catalunya) 4 trenen egiturak egiten ere.

Azkena kontratatutako proiektuetan, oinarritzko ingeniariartzaren garatze-fasean daude Madrilgo Metrorako (S/3000) bi tentsioko 54 UT-ak eta tentsio bakarreko 36 UT-ak, baita 6000 serierako kontratatutako 9 kotxe atoiak ere.





2004ko ekoizpen nagusiak hauek izan dira:

IBILGAILUAK

(M+M) unitatea; Washington DC-ko Metroa	6
(M+M) unitatea, LRV Sacramento (AEB)	16
(M+M) unitatea, LRV Pittsburgh (AEB)	44
(M+M) unitatea, LRV Pittsburgh berrituak (AEB)	4
(B1+B2) aldirietako unitatea, 2000 Trena RENFErentzat	6
(M+R) unitatea Madrilgo Metroa S/2000	4
Bilboko tranbia % 100 zoru baxukoa (2M + R)	3
(DM1+MDT+MT+DM2) diesel trena, Irlandako Errepublika	4
(M1+R+M2) ADR diesel trena RENFErentzat	36
(MCT + MIT + MIP + MCP) Brava ATPRD trena RENFErentzat	12
(DM1+M+DM2) DMU trena, Northern Ireland Railways, NIR	30
(2RCP + 2M1 + 2M2) trena Erromako Metrorako	12
(CPM + CMIP + CMI + CMT) s/104 anezka-tren RENFErentzat	16
(M1+M2+4N+2R+PR) trenak Mexikoko Metrorako	9
(5M+2R) diesel kotxeak Mallorcarako	1
GUZTIRA	203

BOGIEAK

Altzairu soldatuzko xasisa (Motorra + Atoa)	780
---	-----

OSAGIAK

Ardatz muntatuak	3.945
Ardatz-gorputzak (guztira)	7.548
Gurpilak (Guztira)	33.478
Bandajeak	641
Koipe-kaxak	3.113
Erreduktoreak	262
Esekidura pneumatikoak	85
Balazta-blokeak	65
Scharfenberg krokagailuak	639

Beste ekoizpen osagarri batzuk hauek izan dira:

Altzairua	34.013 t
Altzairu moldatua	368 t
Eratzun eta bridak + Garabi-gurpilak (unitateak)	2.475

Konponketa-arloan, hauek dira aipagarrienak:


S/3500 unitate elektrikoak	2
S/200 unitate elektrikoak	2
Kotxeak, Mallorca	5
Bogieak, Bilboko Metroa	40

Giza Baliabideak

Enpleguaren ataria, Interneten teknologia aprobetxatuz, Giza Baliabideen komunikazioa eta kudeaketa hobetzeko. Berrito lortu dugu ISO 14001 ziurtagiria.

Enpleguak

(pertsona kopuruak)



* 2001eko, 2002ko, 2003ko eta 2004ko datu bateratuak

2004ko ekitaldian, talde bateratuko plantilla baliokidearen bilakaera hau izan da:

	Finkoak	Guztira	Urteko batezbestekoa
31-12-03	2.705	3.505	3.472
31-12-04	2.853	3.855	3.846

Lehen sei hilekoan langile berriak sartu dira; ondorioz, Konpainiako hainbat alor indartu dira. Horrez gain, eremu teknologikoetan ahalmena indartu du partaidetzako sozietateen garapenak ere.

102 prestakuntza-jardura egin dira urtean zehar. Ordenagailu bidezko diseinu-sistemaren bertsio berriaren prestakuntza-jardura egin da eta Akabera Saileko antolamendu-egitura osoan parte hartu da, Langileen Kudeaketa eremuan.

Enpleguaren ataria abian jarri da, Interneten teknologia aprobetxatuz. Horri esker, Giza Baliabideen komunikazioa eta kudeaketa hobetu ahal izango dira.

Prebentzio Planeari aurreikusitako jarduerak gauzatu dira. Ekitaldi honetan, aipatzekoa da langileak prestatzeko eta informatzeko egin den ahalegina. Halaber, nabarmen egin da aurrera enpresa-jardueren, esleipenen eta azpiesleipenen koordinazioan.

Ingurumeneko ISO 14001 ziurtagiria berrito lortu dugu.



2004. urteko inbertsioak

Inbertsioak, batez ere, produktibitatea, laneko segurtasuna eta ingurumen-baldintzak hobetzeko izan dira.


2004 urtean 23.001 mila euroko inbertsioak egin dira gure lantegietan (zenbateko horretan ez dago kanbio-tasaren bihurtze-eragina). Aurreko urteetako inbertsio-erritimoei jarraituz, inbertsioak, batez ere, produktibitatea, laneko segurtasuna eta ingurumen-baldintzak hobetzeko izan dira.

Inbertsio adierazgarrienak hauek dira:

- Instalazio berria prestatu da teknologia handiagoko produktuetarako bogieak egiteko.
- Beasain, Irun eta Zaragozako akabera-instalazioak egokitu, handitu eta modernizatu dira.
- Tren-ibilgailuetarako Laborategi eta Entsegu Zentro berrirako lanak hasi dira.
- Baliabide teknikoak ezarri dira Ingeniaritza bulegoetan hardwarea diseinatzeko eta berritzeko.
- Ekoizpen-baliabideak ingurumen-arauetara egokitu dira.

Inbertsioak

(mila euro)



* 2001eko, 2002ko, 2003ko eta 2004ko datu bateratuak



Garapen teknologikoa

***ADR tren baskulagarriak,
abiadura handiko eta zabalera
aldakorreko ATPRD trenak,
Erromako Metroa eta Mexikoko
Metroa amaitu eta haien probak
egin dira.***



Azken urteetako politikari jarraituz, enpresaren jarduera teknologikoa oso handia izan da.

Hemen azalduko ditugun ikerketa- eta garapen-jardueraz gain, aipatzekoa da "Entsegu Zentro" berria eraikitzen hasi direla lehengo galdategiaren lursailetan.

CAF I+Dren eta partaidetzako Géminis, Traintic, Lander eta Asiris enpresen jarduera ere indartu egin da.

Aurtengo jardueretan, hauek dira garrantzitsuak:

Oinarrizko ikerketa eta teknologia

2004an, zabalera aldakorreko BRAVA bogieak dituzten TRD trenak normaltasunez jarraitu dute Katalunia-Zaragoza-Huesca-Jaca linean merkataritza-zerbitzuak ematen.

2004an RENFEren Ibilbide Luzeko Lineak Unitaterako egin diren zabalera aldakorreko eta abiadura handiko ATPRD trenak doitzeko eta homologatzeko probak egiten hasi gara, eta dagoeneko oso aurreratuta daude.

CAFek, Traintic filialarekin batera, ekipo elektroniko berriak garatzearekin eta hornitzearekin lotutako jarduera gauzatzen jarraitu du. Gainera, jarduera berriei ekin diegu alor horretan. ATPRD trenaren proiektuak aukera eman du segurtasun-eskakizun handiko ekipo elektroniko berriak garatzeko.

Zentro teknologiko eta unibertsitateekiko elkarlanari dagokionez, aurreko urteetan finkatutako politikari jarraitu diegu eta erakunde eta eremu teknologiko berrietara heltzen saiatu gara.

2004an ere jaso dugu administrazioek (foru-aldundietakoek, autonomikoez, estatukoek eta Europakoek) gure I+G-ari ematen dioten laguntza. Europako proiektuetan parte hartzeko, lankidetzeta-hitzarmenak sinatu dira hainbat herrialdetako enpresa, zentro teknologiko eta unibertsitateekin.

Garapen berriak

laz egindako merkataritza-jardueraren lagungarri eta osagarri, proposamen tekniko berriak prestatu behar izan ditugu lanean aritu garen bezeroentzat. Guztira 26 aurre-proiektu egin ditugu. Horien artean, honako hauek dira aipatzekoak:

Espainiako merkatuan:

Renferi abiadura handiko hainbat material eskaini zaizkio (zabalera aldakorreko trenak Ibilbide Luzeko Linearako, zabalera aldakorreko trenak AVerako, trakzio-buruak, anezka-trenak eta 300 km/h-ko trenak).

Madrilgo Metroari metrorako hainbat serietako materiala (3000, 8000 eta 9000 seriea) eta tranbiak eskaini zaizkio.

Kanpoko merkatuan:

- Irlandako Errepublikarako diesel trenak.
- Gauteng-erako (Hegoafrika) unitate elektrikoak.
- TTAraiko diesel trenak, Ipar Carolina.
- Rotterdamarako unitate giltzatuak.
- SOB-erako (Suitza) eta SNCBrako (Belgika) tren elektrikoak.
- Israelgo intercity zerbitzurako trenak.

Urtean egin diren eraikuntza-proiektuetan, hauek dira aipagarrienak:

Lehendik hasitakoetan, hauekin jarraitu da:

- Irlandako Errepublikarako bidaiari-kotxeak (intercity zerbitzurako 9 kotxeako trenak).
- Sevillako Metrorako trenak.
- Bartzelonako Metrorako trenak.
- ADR tren baskulagarriak, abiadura handiko eta zabalera aldakorreko ATPRD trenak, Erromako Metroa eta Mexikoko Metroa amaitu eta haien probak egin dira.

Horrez gain, proiektu hauei ekin zaie:

- Bruselako Metroa.
- Madrilgo Metroa, 3.000 seriea.
- Abiadura handiko eta trenbide-zabalera aldakorreko tren berriak Renferentzat.



Etorkizuna

Laburbilduta, hauek ditugu berehalako eginkizun nagusiak:

- Produktzio-ahalmena etengabe haztea, eskaeren gehikuntzari erantzun ahal izateko.
- Industria, teknologia eta antolaketa arloetan enpresa indartzea, aktibo finkoetan inbertsioak eginez.
- Produktu berriak garatzea eta proiektuen kudeaketa integralerako sistema aurreratuak ezartzea.
- Trenbide-materialen nazioarteko merkatuetan segitzea CAFek.
- Enpresaren ahalmena garatzea trenbide-arloari aplikatzeko zerbitzuen negozioan.



Ondorengo gertaerak

2005eko otsailaren 28an, 2.359.380 mila euroko eskaerazorria zuen CAFek kontratu irmoarekin.

Ordurako, Cartera Social, S.A. CAFeko akziodun nagusi zen, partaidetza handitu eta guztira % 23,11 eskuratu baitzuen.

Ekitaldia itxi ondoren ez da ezer aipagarririk gertatu.



Ikuskaritza

Txostena



(Txosten hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

URTEKO KONTU BATERATUEN IKUSKARITZA-TXOSTENA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A.ko akziodunei:

1. CAF Taldea osatzen duten Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A.ren eta mendeko sozietateen urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu (1.eta 2.c oharra). Urteko kontu horiek 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazien kontuak eta memoria bateratuak osatzen dituzte; horiek egitea Elkarteko Administrazioaren erantzukizuna da. Gure erantzukizuna orokorki onartutako ikuskaritza-arauekin bat etorritik burututako lanean oinarrituz, osotasunean hartutako urteko kontu bateratu hauei buruzko osoko iritzia ematea da. Lan honek, aukeraketa-frogen bidez, urteko kontu bateratuak frogatzen dituen nabaritasuna eta horien aurkezpenaren ebaluaketaren, aplikatutako kontabilitate-printzipioen eta egindako zenbatespenen azterketa eskatzen du.
2. Merkataritza-legeriak agindutakoa betez, Administrazioaileek, balantzeko eta galdu-irabazien kontuko kontusail bakoitzaren ondoan, 2004ko ekitaldiko zenbatekoen gain, aurreko ekitaldikoak ere aurkeztu dituzte alderatu ahal izateko. Gure iritzia 2004ko ekitaldiko urteko kontuei buruzkoa besterik ez da. 2004ko martxoaren 30an, 2003. ekitaldiko urteko kontu bateratuei buruzko txostena igorri genuen, bertan adierazitako iritzia aldekoa izanik.
3. Gure iritzian txostenarekin batera aurkeztutako 2004ko ekitaldiko kontu bateratuek, aurreko ekitaldian erabilitakoekin uniformeki aplikatu diren orokorki onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauekin bat etorritik, arlo esanguratsu guztietan, 2004ko abenduaren 31an Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles Taldea osatzen duten Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A.ren eta mendeko sozietateen ondarea eta egoera finantzarioaren, eragiketen emaitzen eta data horretan bukatu den ekitaldian lortu eta aplikatutako baliabideen irudi zehatza erakusten dute, baita horiek egoki ulertzeko beharrezkoa eta behar adinakoa den informazioa bildu ere.
4. Txostenarekin batera aurkeztu den 2004ko Kudeaketa Txosten bateratuak, Taldearen egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlori buruz Sozietate nagusiaren administrazioaileen ustez egokiak diren azalpenak barneratzen ditu, eta ez da urteko kontu bateratuetako bat. Aipatutako kudeaketa-txosten bateratuak barneratzen duen kontabilitate-informazioa, beraz, 2003ko ekitaldiko urteko kontu bateratuekin bat datorrela egiaztatu dugu. Gure ikuskaritza-lana kudeaketa-txosten bateratua egiaztatzerara mugatzen da, paragrafo honetan aipatutako eremuarekin egingo dena, eta ez du Elkartearen kontabilitate-erregistroetatik lortutakoarekin alderatuta ezberdina den informazioaren berrikuspenik barneratzen.

DELOITTE, S.L.

R.O.A.C.en S0692 zenbakiaz inskribatua



Joseba Ijalba Ruiz

2.005ko martxoaren 30an

Talde
Bateratuaren
Urteko Kontuak



Egoera-Balantze Bateratuak

2004 eta 2003ko abenduaren 31n
(1., 2. eta 4. oharra) (Eurotan)

Aktiboa

	04-12-31	03-12-31
IBILGETUA		
<i>Establezimendu-gastuak</i>	71.063	45.288
<i>Ibilgetu ez-materiala, garbia (5. Oharra)</i>	14.119.310	17.596.420
<i>Ibilgetu materiala (6. Oharra)</i>		
<i>Lurrak eta eraikinak</i>	93.198.525	81.364.820
<i>Instalazio teknikoak eta makineria</i>	139.887.650	135.093.360
<i>Beste zenbait instalazio, tresneria eta altzariak</i>	9.684.552	8.600.657
<i>Gainerako ibilgetua</i>	16.053.567	13.969.511
<i>Bideango aurrerakinak eta ibilgetu materiala</i>	—	476.828
<i>Amortizazioak</i>	(163.051.043)	(158.084.722)
	95.773.251	81.420.454
<i>Ibilgetu finantzarioa, garbia (7. Oharra)</i>	21.221.676	18.779.808
<i>Ibilgetua guztira</i>	131.185.300	117.841.970
HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO GASTUAK	5.382	—
AKTIBO ZIRKULATZAILEA		
<i>Izakinak (8. Oharra)</i>	19.848.218	29.452.853
<i>Zordunak</i>		
<i>Bezeroak salmenta eta zerbitzu-prestazioengatik (9. 12. Oharrak)</i>	433.952.412	320.383.994
<i>Enpresa elkartuak, zordunak (7. Oharra)</i>	17.896	932.444
<i>Hainbat zordun</i>	603.464	2.773.568
<i>Administrazio Publikoak (14. Oharra)</i>	9.617.684	5.718.570
<i>Hornidurak</i>	(1.011.285)	(1.082.406)
	443.180.171	328.726.170
<i>Finantza-inbertsio iragankorrak (10. Oharra)</i>	23.679.429	49.815.394
<i>Altxortegia</i>	1.434.482	3.226.237
<i>Urtealdi-amaierako doikuntzak</i>	456.634	315.002
<i>Aktibo zirkulatzailerak guztira</i>	488.598.934	411.535.656
AKTIBOA GUZTIRA	619.789.616	529.377.626

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

Pasiboa

	04-12-31	03-12-31
FONDO PROPIOAK (11. Oharra)		
<i>Harpidetutako kapitala</i>	10.318.506	10.318.506
<i>Jaulkipen-saria</i>	11.863.347	11.863.347
<i>Errebalorizazio-erreserba</i>	28.034.368	28.034.368
<i>Sozietate nagusiaren beste zenbait erreserba</i>	82.363.334	75.695.511
<i>Integrazio osoz eta baliokidetzan jarrita bateratutako sozietateetako erreserbak</i>	3.682.317	2.254.338
<i>Bihurtze-diferentziak</i>	(2.809.287)	(2.750.817)
<i>Sozietate nagusiari dagozkion galdu-irabaziak (mozkinak)</i>	14.056.123	11.605.548
Fondo propioak guztira	147.508.708	137.020.801
KANPOKO BAZKIDEEN INTERESAK	1.958.626	1.879.346
HAINBAT EKITALDITAN BANATZEKO SARRERAK (12. Oharra)	4.058.492	5.014.021
ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURA (4.o Oharra)	1.225.961	830.969
EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK		
<i>Beste zenbait zor (4.l eta 12. Oharrak)</i>	66.605.018	47.363.700
<i>Administrazio Publikoak (14. Oharra)</i>	2.421.133	2.432.730
<i>Akzioei buruzko oraindik egin gabeko ordainketak, eskatu gabek</i>	103.336	2.104.850
Epe luzeko hartzekodunak guztira	69.129.487	51.901.280
EPE LABURREKO HARTZEKODUNAK		
<i>Kreditu-erakundeekiko zorrak</i>	154.036	47.197
<i>Enpresa elkartuekiko zorrak (7. Oharra)</i>	2.832.918	1.329.363
Merkataritza-hartzekodunak		
<i>Eskaerengatik jasotako aurrerakinak</i>	172.906.288	133.407.850
<i>Erosketengatiko edo emandako zerbitzuengatiko zorrak (12. Oharra)</i>	154.280.808	140.998.531
	327.187.096	274.406.381
Merkataritzakoak ez diren beste zenbait zor		
<i>Beste zenbait zor</i>	168.315	4.377.756
<i>Administrazio Publikoak (14. Oharra)</i>	32.283.433	20.963.598
<i>Ordaintzeko dauden ordainsariak</i>	8.754.343	7.989.858
	41.206.091	33.331.212
Trafiko-eragiketetarako hornidurak (15. Oharra)	23.956.498	23.574.121
Urtealdi-amaierako doikuntzak	571.703	42.935
Epe laburreko hartzekodunak guztira	395.908.342	332.731.209
PASIBOA GUZTIRA	619.789.616	529.377.626

Memorian deskribatzen diren 1etik 21era bitarteko oharrak 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuaren parte dira.

Galdu-Irabazien Kontu Bateratuak

2004 eta 2003ko abenduaren 31n
Bukatutako Urteko Ekitaldietako
(1., 2. eta 4. oharra) (Eurotan)

Zorra

	2004ko ekitaldia	2003ko ekitaldia
GASTUAK		
<i>Produktu bukatuen eta fabrikazio-bidean dauden produktuen izakinen murrizketa</i>	57.619.642	82.767.840
<i>Lehengaien eta beste zenbait gai kontsumigarriren kontsumoa (16. Oharra)</i>	284.154.227	195.072.687
<i>Pertsonal-gastuak (17. Oharra)</i>	152.155.231	133.177.214
<i>Ibilgetuaren amortizaziorako zuzkidurak (5. eta 6. Oharrak)</i>	15.223.632	13.458.120
<i>Trafiko-horniduren aldaketa garbia (7. eta 15. Oharrak)</i>	2.524.251	3.461.222
<i>Beste zenbait ustiapen-gastu</i>		
<i>Kanpo-zerbitzuak</i>	52.494.462	55.048.333
<i>Zergak</i>	1.485.110	1.410.819
Ustiapen-mozkinak	18.258.903	15.731.682
<i>Finantza-gastuak eta antzekoak (13. oharra)</i>	3.063.815	4.535.016
Finantza-emaiza positiboak	—	—
Jarduera arrunten mozkinak	18.401.396	14.733.286
<i>Ibilgetu materialaren, ez-materialaren, eta kontrol-zorroaren horniduren aldaketa</i>	148.614	393.411
<i>Ohiz kanpoko gastuak (7. Oharra)</i>	632.381	9.632
<i>Ibilgetu materialak eragindako galerak (6. Oharra)</i>	316.499	—
Ohiz kanpoko emaitza positiboak	—	—
Mozkin bateratuak zergen aurretik	17.490.726	14.403.429
<i>Sozietateen gaineko zerga (4.n, 14. eta 15. Oharrak)</i>	5.428.251	3.819.985
Ekitaldiko emaitza bateratua (Mozkinak)	14.118.945	11.645.754
<i>Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza (Mozkina)</i>	62.822	40.206
Sozietate nagusiari egotzitako ekitaldiaren emaitza (Mozkinak)	14.056.123	11.605.548

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

Hartzekoa

	2004ko ekitaldia	2003ko ekitaldia
SARRERAK		
<i>Negoio-zifraren zenbateko garbia (16. Oharra)</i>	578.012.441	495.479.207
<i>Enpresak ibilgetuarentzat egindako lana</i>	331.588	1.087.200
<i>Beste zenbait ustiapen-sarrera</i>		
<i>Sarrera osagarriak eta kudeaketa arrunteko beste zenbait</i>	406.670	598.342
<i>Ustiapeneko diru-laguntzak (12. Oharra)</i>	5.164.759	2.963.168
Ustiapen-galerak	—	—
<i>Kapital-partaidetzengatik sarrerak (7. Oharra)</i>	17.170	954
<i>Beste zenbait interes eta antzeko sarrerak (10. Oharra)</i>	2.972.184	3.322.165
Finantza-emaiza negatiboak	74.461	1.211.897
<i>Baliokidetzan jarritako sozietateen mozkinetako partaidetzak</i>	216.954	213.501
Jarduera arrunten galerak	—	—
<i>Ibilgetu materiala inorenganatzean lortutako mozkinak (6. Oharra)</i>	102.671	68.306
<i>Ekitaldiaren emaitzara transferitutako kapitalaren diru-laguntzak</i>	76.773	—
<i>Beste ekitaldi batzuetako sarrerak eta irabaziak</i>	—	4.880
<i>Aparteko sarrerak</i>	13.380	—
Ohiz kanpoko emaitza negatiboak	910.670	329.857
Galera bateratuak zergen aurretik	—	—
<i>Mozkinen gaineko zergetako doikuntza positiboak (4.n eta 7. Oharra)</i>	2.056.470	1.062.310
Ekitaldiko emaitza bateratua (Galerak)	—	—
<i>Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza (Galera)</i>	—	—
Sozietate nagusiari egotzitako ekitaldiaren emaitza (Galera)	—	—

Erantsitako memorian deskribatzen diren 1etik 21era bitarteko oharrak 2004ko urteko ekitaldiari dagokion galdu-irabazien kontu bateratuaren parte dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

*Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A.
eta Mendeko Sozietateak (CAF Taldea)*

Memoria Bateratua

**2004ko abenduaren 31n amaitutako
Urteko Ekitaldiari dagokion**

1 Sozietate Nagusiaren izaera eta jarduera

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. (aurrerantzean CAF edo Sozietate nagusia) Donostian sortu zen, mugarik gabeko izaerarekin.

Helburu soziala Estatutu Sozialen 2. artikuluan deskribaturik dago.

Sozietate nagusiaren oraingo jarduera behinena trenbide-materiala ekoiztea da.

Sozietate nagusiak, bere jarduerak egiteko, beste sozietate batzuetan partaidetzen gehiengo du (2.c. Oharra).

2 Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

a) Irudi zehatza

Honekin batera doazen 2004ko abenduaren 31ko urteko kontu bateratuak sozietate bateratuen banakako kontabilitate-erregistroetatik lortu dira eta Kontabilitate Plan Orokorrean eta Urteko Kontu Bateratuen aurkezpenari buruzko 1815/1991 Errege Dekretuan jasotakoa kontuan hartuz aurkeztu dira, CAF Taldearen ondarearen, finantza-egoeraren eta bere eragiketen emaitzen irudi zehatza eman dezaten. Urteko kontu bateratu horiek, Sozietate nagusiaren Administrazioaileek emandakoak, Sozietate nagusiaren Akziodunen Batzar Orokorriari aurkeztuko zaizkio onar ditzan. Hala ere, aldaketarik gabe onartuko direla uste dute.

Administrazioaileek egindako 2003ko ekitaldiko urteko kontu bateratuak 2004ko ekainaren 5ean onartu zituen Akziodunen Batzar Orokorrak (11. Oharra).

b) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu bateratuak prestatzeko erabilitako kontabilitate-printzipioak Merkataritza-kodean, indarrean dagoen Sozietate Anonimoen legean eta abenduaren 20ko 1643/1990 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitate Plan Orokorrean jasotakoak dira. Hala ere, urteko kontu bateratuak aurkezteko arauak onartzen dituen abenduaren 20ko 1815/1991 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera prestatu dira.

c) Talde bateragarria eta bateratze-printzipioak

Baterakuntza-eremua

2004ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontu bateratu hauek Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A.ren (Sozietate nagusiaren) (1. Oharra) eta ondoren zerrendatu diren Mendeko sozietateen banakako kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira:

	Zuzeneko eta zeharkako partehartzearen %	Enpresaren helbidea	Jarduera	Ikuskaria
Integrazio osoz bateratuak (**)				
CAF, S.A.	Sozietate nagusia	Gipuzkoa (Espainia)	Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza-eta industria-jarduera	Deloitte
CAF USA, Inc.	100%	Delaware (AEB)	Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza-eta industria-jarduera	Deloitte
CAF México, S.A. de C.V.	100%	Mexiko D.F. (Mexiko)	Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza-eta industria-jarduera	Deloitte
CAF Brasil Ind. e C., S.A.	100%	Sao Paulo (Brasil)	Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza-eta industria-jarduera	Ernst & Young
CAF Argentina, S.A.	99,9%	Buenos Aires (Argentina)	Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza-eta industria-jarduera	Ernst & Young
CAF Irlanda, Ltda.	100%	Belfast (Ipar Irlanda)	Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza-eta industria-jarduera	Deloitte
Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. (*)	77,6%	Gipuzkoa (Espainia)	Enpresa-promozioa eta -sustapena, horien kapitalean aldi batean parte hartuz	Arco Auditores
Urbanización Parque Romareda, S.A.	100%	Zaragoza (Espainia)	Akzioen edukitza	Ez dagokio
CAF I+D azpitaldea				
CAF I+D, S.L. (Kide bakarreko Sozietatea)	100%	Gipuzkoa (Espainia)	Trenbide-materialari lotutako ikerketa eta garapena	Ez dagokio
Sasismag, S.A.	100%	Gipuzkoa (Espainia)	Eragiketa-eskuliburuak egitea (jarduerarik gabe)	Alter Consulting
Ipar Sistemas 2002, S.L.	99,9%	Bizkaia (Espainia)	Balore-zorroa kudeatzeko sozietatea	-
Traintic, S.L.	99,9%	Gipuzkoa (Espainia)	Elektronika-gaiak egitea	BSK
Sermanfer Azpitaldea				
Sermanfer, S.A.	100%	Madril (Espainia)	Trenbide-materialaren mantentze-zerbitzuak	Audiconta
Sefemex, S.A. de C.V.	100%	Mexiko D.F. (Mexiko)	Zerbitzuak ematea eta langileen administrazioa	Horacio Ramírez y Asociados, S.C.
Tradinsa Industrial, S.A. (*)	80%	Lleida (Espainia)	Trenbide-materialen konponketa eta mantentze-lanak	Roig y Roig, Asociados
Baliokidetzan jarrita bateratuak (7. Oharra) (**)				
AAI-CAF Transit, LLC	50%	Maryland (AEB)	Trenbide-ekipo eta -osagaien muntaketa (jarduerarik gabe)	Deloitte
Sab Ibérica, S.A.	24,5%	Madril (Espainia)	Tren-balazten ekipoen salmenta	Deloitte (Prozesuan)
CAF I+D azpitaldea				
Lander Simulation and Training Solutions, S.A.	40%	Gipuzkoa (Espainia)	Simulagailuak aztertzea eta egitea	S.M. Auditores
Asirys Vision Technologies, S.A.	31%	Gipuzkoa (Espainia)	Produktzio automatikoko sistemak aztertzea eta egitea	S.M. Auditores

(*) "Kanpoko bazkideen interesak" ematen dituzten sozietate bakarrak.

(**) Sozietate nagusiak bermatu egiten die laguntza bere mendeko sozietateei, ekitaldi baterako gutxienez.

2004an, baterakuntza-eremuaren aldaketa nagusia izan da 2004ko urtarrilaren 1ean sozietate hauek bat egin izana: CAF Irlanda, Ltda., CAF I+D, S.L. eta horien mendeko sozietate elkartuak Sasismag, S.A., Ipar Sistemas, S.L., Traintic, S.L., Lander Simulation and Training Solutions, S.A. eta Asirys Vision Technologies, S.A., eta Sermanfer, S.A. ren mendeko sozietateak, Sefemex, S.A. de C.V. eta Tradinsa Industrial, S.A.

Baterakuntza-metodoa

Baterakuntza-prozesuan gehiengoa duten partaidetzei integrazio osoko metodoa aplikatu zaie, eta aplikagarria denean, gutxiengoa duten akziodunen interesak jaso dira, egoera-balantze bateratuko "Kanpoko bazkideen interesak" kontusailean. Urteko kontu bateratuak prestatzean, sozietate bateratuen arteko kontu eta transakzio garrantzitsu guztiak ezabatu egin dira.

Horrez gain, ondoren adierazten denean izan ezik, sozietateetan dituzten kapital-inbertsioak % 20 edo gehiago baina % 50 baino gutxiago direnean, partaidetza horiek ordezkatzan duten ondare-netoaren zatikiaz baloratu dira, horietatik jasotako dibidendu-kenketak eta beste ondare batzuenak egin ondoren (baliokidetzan jartzearen irizpidea). AAI-CAF Transit, LLC sozietateko partaidetzei integrazio proportzionaleko metodoa aplikatzearen eragina ez litzateke esanguratsua izango.

Atzerri-monetako finantza-egoeren bihurteta

Atzerri-monetako finantza-egoerak "itxiera-kanbioko tasan" bihurtu dira eurotara. Hau da, itxiera-egunean indarrean zegoen kanbio-tasa erabili da ondasun, eskubide eta obligazio guztien balioak eurotara bihurtzeko, eta galdu-irabazien kontuko kontusailak bihurtzeko, berriz, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasa.

Kanbio-tasa historikoa erabiliz bihurtutako atzerriko sozietatearen fondo propioen (galdu-irabazien kontuaren saldoa izan ezik, lehenago aipatutakoagatik) eta ondasunak, eskubideak eta obligazioak itxiera-eguneko kanbio-tasan bihurtzeagatik sortutako ondare-egoera netoaren arteko diferentzia balantze bateratuko Fondo Propioetan "Bihurteta-diferentziak" kontusailean erregistratu da, diferentzia horretatik kanpoko bazkideei dagokien zatia kendu ondoren. Kanpoko bazkideei dagokien zati hori "Kanpoko bazkideen interesak" kontuan erregistratu da.

Ohizkoa denez, urteko finantza-egoera bateratuetan ez dago mendeko sozietate bateratuen erreserba eta mozkinak Sozietate nagusian sartzearen ondoriozko eragin fiskala sartuta.

3 Eraitzen banaketa

Sozietate nagusiaren ekitaldiko eraitzen banaketa honela egin da Administrazioaileek hala proposaturik:

Banaketa	Eurotan
Borondatezko erreserbak	7.977.486
Dibidenduak	4.696.463
Guztira	12.673.949

4 Balorazio-arauak

2004ko abenduaren 31ko urteko kontu bateratuak egiteko CAF Taldeak erabilitako balorazio-arau nagusiak, indarrean dagoen legeriak agintzen duena kontuan hartuz, honako hauek izan dira:

a) Ibilgetu ez-materialak

Aplikazio informatikoak eta ikerketa- eta garapen-proiektuak –teknikoki eta komertzialki arrakasta izango dutela zalantzarik izan ezean– erosketa-kostuan (edo, dagokionean, izakinak zenbatesteko arauaren arabera aplikatutako ekoizpen-kostu metatua –4.d Oharra–) zenbatesten dira. Aplikazio informatikoak erosten direnean hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira linealki (5. Oharra). Ikerketa eta garapeneko proiektuak erosten direnean (edo amaitzen direnean) hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira linealki edo denbora-epe horretan lortu diren garapenarekin erlazionatutako kontratuen kosturik handien gisa berreskuratzen dira. Azken kasuan, izakinetara edo izakinetatik igortzen dira (5. Oharra).

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materiala erosketa-prezioan dago baloratuta, Sozietate nagusiaren kasuan hainbat lege-xedapenen arabera eguneratuta. Lege-xedapen horiek, besteak beste, hauek dira: abenduaren 5eko 11/1996 Foru Araua eta abenduaren 13ko 13/1990 Foru Araua (6. eta 11.g Oharra).

Ondasunen produktibitatea, ahalmena edo eraginkortasuna areagotu edo haien bitzita baliagarria luzatzen duten zabaltzearen, modernotzearen edo hobetzearen kostuak ondasun horien kostu handiago gisa kontabilizatzen dira.

Sozietate bateratuek beren ibilgetuan egindako lanak ekoizpen-kostu metatu gisa erregistratzen dira, izakinak zenbatesteko arauak aplikatuta (4.d Oharra).

Ibilgetu materialeko elementuak metodo lineala erabiliz amortizatzen dira, zenbatetsitako bitzita baliagarriaren urte hauei dagozkien ehunekoak aplikatuta:

Zenbatetsitako Bitzita Baliagarriko Urteak

Eraikinak	25 – 50
Instalazio teknikoak eta makineria	6 – 10
Beste zenbait instalazio, tresneria eta altzariak	3 – 10
Gainerako ibilgetua	10

c) Finantza-ibilgetua eta Finantza-inbertsio iragankorrak

Finantza-ibilgetuak –globalki integratu gabeak eta baliokidetzan jartzearen arabera zenbatetsi gabeak (2.c eta 7. Oharrak)– erosketa-balioaren edo, txikiagoak balira, berreskuratze- edo merkatu-balioaren arabera (2004ko abenduaren 31ko kotizazioa edo kontabilitate-balio teorikoa, dagokiona, aplikatuz) daude zenbatetsita. Azken balio horien arabera zenbatetsiz gero, dagokien hornidura aplikatuko da eta "Ibilgetu finantzarioaren horniduren aldaketak" atalean kargatuko da.

Epe luzera kobratzeko kontuak emandako benetako zenbatekoaz zenbatetsiko dira. 2004ko abenduaren 31 ez zegoen garrantzi handiko epe luzera kobratzeko konturik.

Finantza-inbertsio iragankorrak (10. Oharra) erosketa-prezioan edo, txikiagoa balitz, berreskurapen-balioan zenbatetsiko dira. Horiei dagozkien finantza-sarrerak galdu-irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait interes eta antzeko sarrerak" kontusailean erregistratuko dira.

d) Izakinen zenbatespena

Lehengaien eta beste zenbait hornikuntzen eta merkataritza-produktuen izakinak batez besteko erosketa-prezioan edo, txikiagoa balitz, merkatu-prezioan zenbatesten dira.

Fabrikazio-bidean dauden produktuak, produktu bukatuak eta erdibukatuak dagoeneko likidatuta dauden kostuak kenduta, 4.e oharrean deskribatutako prozeduraren arabera eta irizpide hauei jarraituz zenbatetsiko dira:

1. Obra bakoitzari egotzitako materialak eta gastuak batez besteko erosketa-prezioan edo ekoizpen-kostuan.
2. Eraldatze-gastuak eskulanaren kostuak eta zeharkako eta zuzeneko ekoizpen-gastuak barne hartzen dituzten ordu-tasa estandarren arabera (ez dira ordu-tasa errealean oso desberdinak).

e) Kontratuetak sarrera eta emaitza partzialen erregistroa

Taldeak kontratu bakoitzari dagozkion sarrerak eta emaitzak zenbatetsitako horien aurrerapen-mailaren arabera erregistratzeko irizpidea erabiltzen du, oro har. Aurrerapen-maila hori aurreikusitako ordu guztiekiko kontratuari egotzitako orduak suposatzen duten ehunekoaren arabera kalkulatu da. Kontratutako proiektuetan sor daitezkeen galerak zenbateko osoak erregistratzen dira, galera horiek ezagutzen direnean edo zenbatets daitezkeenean.

Kontratu bakoitzeko aurreikusitako emaitza jakitean, Taldeak indize zuzentzaile hauek aplikatzen ditu emaitzak eta sarrerak zehazteko:

- Aurrerapen-maila % 0-10 bitartekoa denean, ez da posible ez sarrerarik erregistratzen.
- Aurrerapen-maila % 10ekoa baino handiagoa denean, aurrerapen-maila horren pareko posible-eta sarrera-ehunekoak erregistratzen da.

Egindako sarreraren eta kontratu bakoitzean aurreikusitako emaitzaren arabera (aurreko paragrafoetan adierazi bezala kalkulatu), eta aurrerapen-maila kontuan izanik, izakinei baja ematen zaie likidatutako kostuen zenbatekoaz. Zenbateko hori galdu-irabazien kontuko dagozkion kontusailean zordundu eta "Bideango produktuak eta lanak, likidatutako kostuak egindako kostuak baino handiagoak dituztenak" kontusailean abonatzen da. Egoera-balantze bateratuaren aktiboko "Izakinak" ataletik kenduz erregistratzen da (8. Oharra).

f) Bezeroen aurrerakinak eta egindako ekoizpena

Obra bakoitzeko onartutako sarreraren diferentzia (4.e Oharra) eta horregatik fakturatutako zenbatekoa honela erregistratzen da:

- positiboa bada, "Fakturatzeko dagoen egindako ekoizpena" atal moduan "Bezeroak salmenta eta zerbitzu-prestazioengatik" kontusailean (9. Oharra).
- negatiboa bada, "Eskarengatik jasotako aurrerakinak" atal moduan.

g) Kaudimengabeziarako hornidura

Ordainketak atzeratu dituztelako, ordainketa-etenduran, kaudimengabezian edo antzeko egoeran daudelako bezeroen zorrak esaltzeko zuzkitzen du Taldeak hornidura hori, betiere horien kobragarritasunaren azterketa banan-banan eginez. 2004ean kontzeptu horren mugimendu netoa 62 mila euroko emaitzak aplikatzea izan da gutxi gorabehera.

h) Eragiketarak eta beste zenbait konpromiso atzerri-monetan

Atzerriko sozietate bateratuetako dibisazko aktiboak eta pasiboak, 2. oharrean azaldu bezala bihurtu dira eurotara. Dibisazko gainerako aktiboak eta pasiboak (9. eta 10. Oharra), oro har, salerosketa egin zen unean indarrean zegoen kanbio-tasan edo bermatutako kanbio-tasan zenbatetsiko dira, altxortegiaren atzerri-monetako aseguru-kontratuak eslelitutako saldoak izan ezik; horiek 2004ko abenduaren 31n indarrean zegoen kanbio-tasan zenbatetsi dira.

j) Diru-laguntzak

1. Itzultzeko ez diren kapitalaren diru-laguntzak "Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak" kontuan erregistratzen dira behin betiko ematen direnean eta emandako zenbatekoaz. Eta horiek diru-laguntza emandako aktiboen ekitaldiko amortizazioaren tamaina berean eramaten dira, oro har, emaitzetara.
2. Ustiapeneko diru-laguntzak behin betikoak direnean eramaten dira emaitzetara. 12. oharrean jasotakoaz gain, 569 mila euroko sarrerak erregistratu ditu Taldeak 2004ko ekitaldian eta "Beste ustiapen-sarrerak – Ustiapeneko diru-laguntzak" atalean erregistratu dira.

j) Epe luzerako hartzekodunak

Egoera-balantze bateratuaren kapitulu honetako saldoak mugaeguna balantze-eguna baino 12 hilabete edo geroago duten zenbatekoak dira. Oro har, ordaindu beharreko balioaz erregistratzen dira.

k) Erretiro aurreratuak eta lan uzteagatiko kalte-ordainak

2004ko abenduaren 31ko urteko kontu bateratuetan ez dago kontzeptu horiengatiko inolako hornidurarik; izan ere sozietate bateratuek ez dute onartuta erretiroak aurreratzeko inolako planik eta ez da espero kostu garrantzitsuak eragingo dituzten lanpostu-uzterik. 2004an kontzeptu horiengatik ordaindutako zenbatekoek ez dute garrantzirik (17. Oharra).

l) Pentsio-konpromisoetarako hornidurak

Sozietate bateratuek erretiro edo heriotzengatik beren langileekin izan ditzaketen obligazioak aseguru-konpainia independentee-tan gordailutatuko kanpo-fondoetako prestazio jakin batengatiko saria ordainduz zuzkitzen dira.

m) Trafiko-eragiketatarako hornidurak

Egoera-balantze bateratuko atal honetan, batez ere kontratuetako berme eta laguntza-zerbitzuetako gastuak (15.Oharra) eta beren jardueran sortzen diren beste zenbait alderdi batzuk (royaltyak, isunak, etab.) estaltzeko Taldeak sortzen dituen hornidurak biltzen dira. Sozietate bateratuek ekitaldi-itxierako kontzeptu horiengatiko horniduren eta aurreko ekitaldiaren itxieran erregistratuta zeudenen arteko diferentziak eramaten dituzte "Trafiko-horniduren aldatetak" kontura. 2004ko ekitaldian egindako gastuak (4.967 mila euro inguru), "Lehengaien eta beste zenbait gai kontsumigarriren kontsumoak" eta "Pertsonal-gastuak" kontuetan erregistratu dira.

n) Sozietateen gaineko zerga

Ekitaldiko Sozietateen gaineko zergagatiko gastua –atzerrian ordaindutako zergak barne– zerga aurreko emaitza ekonomikoaren arabera kalkulatzen da, emaitza fiskalarekiko desberdintasun iraunkorrenatik gehituz ala murriztuz. Desberdintasun horiek oinarri zergagarriaren eta ondorengo ekitaldietara ez doazen zerga aurreko kontabilitate-emaitzaren artekoak direla ulertu behar da.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, oraindik aplikatu gabe dauden hobari eta kenkariei dagozkien zerga-kredituak erregistratu egin behar dira kontabilitatean, betiere zerga-arauan ezarritako baldintzak beteko direla aurreikusten bada. 2004ko abenduaren 31n, 6.000 mila euro ditu erregistratuta Taldeak kontzeptu horretan, 2004o ekitaldiko sozietateen gaineko zerga kalkulatu ondoren (14. Oharra) eta 2.056 mila euro galdu-irabazien kontuko "Mozkinen gaineko zergetako doikuntza positiboak" atalean abonatu ondoren. Horretaz gain eta izaera horretako aktiboak berreskuratzeko dagoen ziurtasun eza kontuan hartuta, Taldeak, eskaera-zorroren ebaluazioan oinarritutako zehurtzia-irizpidearen arabera, 2003ko ekitaldian sortutako 3,5 milioi euroko hornidurari eutsi dio (15. Oharra).

Halaber, aktibatutako zenbateko horretatik 5.229 mila euro "Aplikatu gabeko kenkari eta hobariengatiko epe luzerako eskubideak – Finantza-ibilgetua" kontuan erregistratuta daude (7. Oharra) eta gainerakoa, berriz, 2004ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko "Aplikatu gabeko kenkari eta hobariengatiko epe laburreko eskubideak - Hazienda Publikoa, zordun" kontuan (14. Oharra).

ñ) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapean-irizpidearen arabera egozten dira; alegia, horiei dagozkien ondasun eta zerbitzuen korrante errealak gertatzen denean, horiengatikoa moneta- edo finantza-korrantea noiz gertatzen den kontuan izan gabe.

Zuhurtzia-printzipioari jarraituz, sozietate bateratuek ekitaldi-itxierako datan egindako mozkinak bakarrik kontabilizatzen dituzte. Aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, baita balizkoak ere, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

o) Arrisku eta gastuetarako hornidurak

Taldeak kontingentzien, bidean diren auzien eta/edo izaera jakinik ez duten beste obligazioen ondorioz sortutako erantzukizun gertagarri edo ziurrei behar bezala aurre egin ahal izateko hornidurak eratzten ditu, beharrezkoa deritzon zenbatekoaz. 2004ko ekitaldian, Taldeak 834 mila euroko ordainketak egin ditu eta 1.229 mila euro esleitu ditu "Pertsonal-gastuak" kontura (17. Oharra).

p) Ingurumen-alderdiak

Taldeak ingurumen-inbertsioak erosketa- edo ekoizpen-kostuan erregistratzen ditu, amortizazio metatua kenduta eta, izaeraren arabera, dagokion ibilgetu materialaren atalean sailkatuta (6 eta 16.d Oharra).

Aplikatu beharreko ingurumen-legeria betetzeko egindako gastuak galdu-irabazien kontuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" kontusailean sailkatzen dira izaeraren arabera (16.e Oharra).

q) Kanbio-tasaren aseguruak

Sozietateak tresna hori erabiltzen du kontratatutako obren estaldurarako nahiz partaidetzako sozietateen inbertsio batzuetarako.

